

LEA ARTIBAI eskualdeko

Haizebarri

Urteko buletina • 2010



Bisitarien datuak

2010 urtean zehar, 31.560 pertsona pasa ziren Lekeitio eta Ondarroako turismo bulegoetatik. Grafikoan ikusten denez, gehienak uda sasoian. Lekeitio 26.187 bisitaritik, 4.888 uztailean eta 7.983 abuztuan etorri ziren. Ondarroako turismo bulegotik 5.373 bisitari pasa ziren, 1.074 uztailean eta 1.421 abuztuan.

Jatorriaren kontua, beste urteko tendentziak mantendu egiten dira:

Turismo bilakaera kontutan hartu ezkerro, 2010ean 1.068 bisitari gutxiago izan dugu gure eskualdean pasa den urtearekin konparatuz.

Bestalde, Lekeitioko Turismo bulegoan, 31 bisita gidatu egin dira (499 pertsona). Playa de Ondarzabal txalupak 797 bisitari izan ditu udan eta 1500 ume Itsas Eskolatik. Nabigazioaren Interpretazio Zentroa dela eta Santa Katalina Itsasargian, 7634 pertsona pasa dira handik. Sosoaga dola-reak, aldiz, 184 bisita jaso ditu.

Ondarroan 32 bisita gidatu egin dira, eta 76 ekitaldi desberdinak Kofradi Zaharran. Azkenik, 2939 erromes egon dira lo egiten Markina- Xemeingo aterpetxean.

AURKIBIDEA

- 2 **Bisitarien datuak**
Urteko balorazioa, grafikoak
- 3 **Sarrera**
Lea Artibaiko turismoaren kudeaketa
- 4 **Bete diren ekintzak**
2010. urtean garatutakoak
- 5 **Turismo arloan kalitatea**
- 6 **Lea artibaiko IV. turismo topaketak**
- 6 **Irisingarritasuna**
- 7 **Egitasmoak herriz herri**
Lekeitio, Ondarro, Markina-Xemein, Lea Ibarra...
- 7 **Erakunde desberdineko turismo planak eta egitasmoak**
- 7 **Anfitriones ikastaroak**

INFORMAZIO GEHIAGO

Leartibai Garapen Agentzia


Turismo Arloa

Sabino Arana, 14, 48280 Lekeitio


Tel: 94 603 41 11 • Fax: 94 603 41 13

e-mail: bbasterretxea@leartibai.com


www.learjai.com • www.leaibarra.com




Lekeitioko T.B. - 2010eko bisitariak



Ondarroako T.B. - 2010eko bisitariak



2010 urteko bisitariak jatorriz



Bisitarien bilakaera bulegoko

Lea Artibai, turismo arloaren erronkak

Lea Artibaiko turismoaren kudeaketa

Leartibai Garapen Agentziak du Lea Artibai eskualdean turismoa garatzeko ardura. Agentziaren misioa eskualdeko garapen ekonomiko osoa da, eta beraz, eskualdeko biztanleen bizi kalitatea gehitzea du azken helburua.

Leartibai Garapen Agentzia eskualdeko sei herrialdek osatzen dute: Ispaster, Lekeitio, Ondarroa, Berriatua, Markina-Xemein eta Etxebarria. Bestalde, turismo helburuak lortu ahal izateko, eta Lea Artibai eskualdeko turismo eskaintza modu integralean ezagutarazteko, Lea Ibarra Mankomunitatearekin sinatutako hitzarmenaren bidez Lea Artibaiko eremu geografikoa era bateratuan sustatzen da gaur egun.

Turismo arloko helburu nagusia zera da: Turismo proiektuak dinamizatu, garatu eta sustatu. Horretarako, lanean dihardugu bai erakunde publiko desberdinekin, bai sektoreko eragile pribatuekin eta sustatzaile berrieekin, Lea Artibaiko turismoa garatzeko xedez.

Leartibai Garapen Agentziak, 2010 urtean turismo ekin-tza plana garatu du, lau ildo estrategikoak landuz: Turismoaren kudeaketa, dinamizazioa, sektorearen lehiakortasuna eta sustapena. Lan ildo bakoitzean zenbait ekintza jarri dira martxan, ezarrira ditugun helburuak betetzeko asmoz.

La gestión del turismo en Lea Artibai

La Agencia de Desarrollo de Lea Artibai es la entidad pública responsable de la gestión turística de la comarca. Su objetivo final es el desarrollo económico de la comarca y el aumento de la calidad de vida de sus habitantes. Para ello, se ha puesto en marcha un plan de actuación cuyas áreas principales de trabajo son: Coordinación y gestión del turismo, dinamización de proyectos, competitividad del sector turístico y promoción integral de la oferta comarcal.



2010 urtean garatutako ekintza nagusiak

KOMUNIKAZIO PLANA

- Banner El Viajero- El País (azaroa – abendua)
- Herri Irratia (Por la Senda del Kiosko- urria)
- 6 turismo azoka espezializatuak
- Prentsa medio desberdinetan agerpenak: erreportaiak, berriak...



KUDEAKETA:

- Lea Artibai eskualdeko turismo ordezkariak, bai Bizkaiko Foru Aldundia, bai Eusko Jaurlaritzak, Basquetour, zein beste erakundeen aurrean.
- Turismo arloan aukeran dauden dirulaguntza programetan parte hartu dugu eskualde mailan.
- Eskualdeko beste turismo agenteekin koordinazioa.

DINAMIZAZIOA:

- Basquetourrek martxan dituen honako proiektu hauetan parte hartu dugu: Euskal Kostako Dinamizazio Plana, Surfing Euskadi, Euskadiko Ibilbideak, produktuen dinamizazioa eta Santiago Bidean.
- Prospektiba lanak egiten ari gara, eskualdeko zenbait baliabide turismo balioan jartzeko aukerak aztertuz: "Itsasoz eta Lehorrez" produktua, Leartibai eskualdean zenbait ibilbide proposatuz.

SEKTOREAREN GARAPENA:

- Urtean zehar turismo arloan dauden dirulaguntzen berri luzatu diegu eskualdeko sektoreko enpresei.
- Turismo arloan sortu berri diren enpresei aholkularitza zerbitzua eskaini diegu.
- Haizebarri – turismo sektoreko buletinaren bi ale atera ditugu.
- IV. Turismo topaketak ospatu dira berrikuntza eta turismo produktuaren inguruan.
- SICTED (Sistema Integral de Calidad Turística en Destino) proiektua martxan dago Lea Artibai eskualdean. 17 enpresa hartzen dute parte bigarren zikloan eta helburua zera da: Kalitatezko eskaintza bermatu eskualdeko turismo sektorean.
- Anfitriones programaren bi ikastaroak antolatu ditugu.
- Irisgarritasun programaren diagnostikoak egin dira enpresetan.

KOMUNIKAZIOA ETA PROMOZIOA:

- Komunikazio plana dela eta, medio ezberdinetan agertu da Lea Artibai aurtien internet bidez egindako promozioa izan da nagusia.
- Turismo azoketan parte hartu dugu: FITUR, STIC, INTUR, EXPO-NATUR, Agrotur eta Expovacaciones.
- Bizkaia Natural markapean egindako ekintza eta promozioan parte hartu dugu.
- Sustapen material berria eskualdeko ostatu eta jabetxeen artean banatu ditugu. Baita Euskadiko turismo bulegoetan ere. Eskualdeko foiletoak arrakasta handia izan du azoketan, bereziki Bilboko Expovacaciones azokan aurtien ere.
- Eskualdeko plana berrargitaratu da.
- Press Trip bat egin da: El País Aguilar gida turistikoa.
- Cicerone informazio sistema sustatzeko, foiletoa berrinprimatu dugu.
- Web orriko edukiak gaurkotu egin dira eta sektoreari informazioa luzatzeko atal berri bat sortu da.
- PIT- 24 orduko informazio puntuak.

*Turismo arloan
sortu berri
diren enpresei
aholkularitza
zerbitzua eskaini
diegu.*

*IV. Turismo
topaketak
ospatu dira
berrikuntza
eta turismo
produktuaren
inguruan.*

Turismo arloan



KALITATEA

2009ko irailaren 16an Leartibai Garapen Agentziaren bermearekin SICTED (Sistema Integral de Calidad Turística en Destino) proiektuaren lehen zikloa jarri zen martxan Lea Artibai eskualdean, Basquetour Turismoaren Euskal Agentzia eta Euskalit Kalitate Fundazioaren laguntzarekin.

Egitaraua lau urtekoa da, baina urtero 6 hilabeteko lana suposatzen du enprestartako. Formazio saio desberdinak egiten dira eta gero enpresak bere negozioan ezarri behar du ikasitakoa. Zikloa bukatu eta gero, ebaluazio bat egiten da eta, gaindituz gero, enpresak praktika onen ziurtagiria lortzen du.

2010ean honako ekintza hauek bete dira kalitate programa honi lotuta:

- Leartibai praktika honen eredutzat hartu zuten Euskadiko I. Helmugen arteko Batzordean, Donostian ospatu zena otsailean. Bertan, sentsibilizazio eta kaptazioan erabilitako egitaraua azaldu genuen.
- Martxoan lehen zikloaren ebaluaketa bukatu egin zen, 18 enpresa gainditu zutela.
- Praktika onen eredu modura, eta bertan hobekuntzan egin duten lana eza-gutzeko, zikloa bukatzerakoan bisita teknikoa egin zen Natxiondo Landa Hotelara.
- Ekainaren 24an zigiluak banatzeko ekitaldi bat ospatu zen Arretxinagako Mikel Deunaren basilizan. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Turismo Zuzendaria Isabel Muela, Leartibai Garapen Agentziko lehenadakia eta eskualdeko alkateak egon ziren.
- Ekainean ere, eskualdeko Turismo Kalitate Mahaia sortu zen, kalitate eta enpresa lehiakortasunean sortzen diren gaiak lantzeko.
- Uztailaren amaieran, Basquetourrek ekitaldi publiko bi antotatu zituen Ondarroa eta Lekeition. Ekitaldi hauetan, mariatxiak kanta egin zuten kalitatean parte hartzen duten enpresei eskerrak emanaz.
- Irailean lan eta formazio bigarren zikloa hasi da martxan.

Egitasmo hau oso garrantzitsua da turismo sektorearentzat eta baita helmuga turistikorako; lehiakortasuna eta bikainta-



sunarela, berrikuntzarekin batera, gaur egungo egoerari aurre egiteko dauzkagun tresnak..

Baliabideen kontura, enpresari prozesuan laguntzeko, Leartibai Garapen Agentziak koordinatzaile bat jarri du, laguntza teknikoko arduradun bat eta pertsona bat kontratatu du enpresei prozesua betetzen laguntzeko. Bestalde, Euskalitetik formazioa ematen da.

Momentu honetan 18 enpresa daude programan: Akiuola, Altuena, Garro, Metrokua, Natxiondo, Oxangoiti, Satsu, Trinkete Etxea, Villa Itsaso, Zelai-Gane, Zubieta, Zarate, Leokadi, Kaitours, Tate Gozotegia Kurtzia, eta Lekeitioko eta Ondarroako Udal Turismo Bulegoak.

Bigarren taldea martxoan hasiko da. Eman zure izena eta egin lan zure kalitatearen alde. Zure negozioa hobetzeko aukera duzu orain.

•••

El segundo grupo comenzará en marzo. Inscríbete y trabaja tú también por la calidad. Ahora tienes la oportunidad de mejorar tu negocio.

La Agencia de Desarrollo de Leartibai, de la mano de Basquetour, que coordina los programas, y de Euskalit, que se encarga de la formación y el apoyo técnico, está implantando el SICTED (Sistema Integral de Calidad Turística en Destino) en la comarca. A lo largo de 2010 se han desarrollado diferentes acciones en torno a este programa, que ha culminado su primer ciclo con la entrega de los distintivos de buenas prácticas a 18 empresas de la comarca. Otras acciones desarrolladas han sido:

- Leartibai fue escogido como ejemplo de buena práctica por el modelo que había desarrollado para la sensibilización y captación del programa, que fue presentado en el primer comité interdestinos de Euskadi, celebrado en febrero en Donosti.
- En marzo terminó la evaluación del primer ciclo, con el resultado de 18 empresas que superaron la misma.
- Como ejemplo de buenas prácticas, al terminar el ciclo se hizo una visita técnica al Hotel Rural Natxiondo, donde nos enseñaron cómo han aplicado diversas herramientas de mejora.
- El 24 de junio se celebró un acto de entrega de los distintivos en la ermita de San Miguel de Arretxinaga, con la presencia de la Directora de Turismo de Gobierno Vasco, el presidente de la Agencia de Desarrollo y los alcaldes de la comarca.
- También en junio se puso en marcha la Mesa de Calidad de Lea Artibai, para tratar temas relacionados con la competitividad de las empresas.
- A finales de julio, Basquetour celebró dos actos públicos de difusión en Ondarroa y Lekeitio, donde un grupo de mariachis dió un espectáculo musical agradeciendo a las empresas participantes su apuesta por la calidad.
- En septiembre ha comenzado el segundo ciclo de formación y trabajo para las empresas.

Lea artibaiko IV. turismo topaketak

Azaroaren 25ean IV. Turismo Topaketak ospatu ziren Markina- Xemeingo Berrikuntza Gunean. Topaketak honen helburu orokorra zuen: denon artean Lea Artibaiko turismo eskaintza handitzeko produktu turistikoak identifikatu edota sortzea.

Eta helburu espezifikoak:

- Kolaborazioaren bidez dugun berrikuntza kapazitatea antzematea
- Taldeen bitartez ideiak edo proposamenak sortzeko aukera eman, gero horiek Lea Artibai eskualdean turismo esperimentziak bilakatzeko asmoz
- Balizko ideiak aurrera eramateko kolaborazioak sortzea.

Idea zera zen: denon artean eskualdeko turismo eskaintza hobetzeko produktuak sortu, berrikuntza prozedurak aplikatu. Horretarako, honako egitaraua garatu zen:

Lehenengo, Berrikuntza Gunera bisita gidatua, bertako proiektuak eta eskaintza ezagutzeko.

Aurkezpena: Jose M^a Cazalis Lekeitioko alkatearen eskutik, eta Leartibai Garapen Agentziako lehendakariaren izenean. Alkateak topaketen bilakaera azpimarratu zuen, eta baita ere turismo arloan bai erakunde publikoak, bai enpresak duten interesa. Zentzu hortan, turismoa arlo ekonomiko modura ulertu behar da derri gorrez, ekonomiari dakarren ekarpenak direla eta.

Gero, Silvia Pererak, Agencia Catalana de Turismetik etorrira, turismo familiarrari buruz hitz egin zuen, eta Catalunyan turismo marka hau sortzeko eman dituen pausuak aztertu genuen, eta atsedean txiki bat egin eta gero, Cristina Mugicak, LKS aholkularitza enpresatik, berrikuntzari buruz hitz egin zuen, ideia berriak sortu eta lan egiteko giroa bultzatzeko asmoz.

Ondoren, hiru lan taldetan banatu eta partaide guztiak lanean hasi ziren, Cristina dinamizatuta, ariketa desberdinak eginez, baina honako helburuaz: turismo eskaintza bat sortu hiru gaien inguruan: Santiago bidea, landa- natura turismoa eta kultur- ondare turismoa. Bi orduko lana izan zen, baina ariketak egin eta gero, elkarlanean ideia asko sortu ziren, eta baita ere lanean jarraitzeko grina.

2011kan turismo arloan ideiak garatzeko foro bat sortu nahi da. Bertan, eskualdeko turismo enpresak bere ideiak landu eta proiektu berriak sortu ahal izango dute, Lea Artibaiko turismoa indartu ahal izateko.

A lo largo de 2011 se quiere poner en marcha un foro de participación donde las empresas turísticas de Lea Artibai puedan desarrollar sus ideas y proyectos para impulsar el turismo de la comarca.

Irisgarritasuna



Eusko Jaurlaritzak "turismoa denontzat" lortu nahian, irisgarritasun eredu jarri du martxan. Diagnostiko bat egin eta gero, establezimendu turistikoek bere zerbitzuak jende guztiari bideratzeko prestatuta dauden ala ez baloratzen da, dibertsitate funtzionaleko bost mota kontuan hartuta betiere: fisikoa, bisuala, auditiboa, intelektuala eta organikoa (arnas zailtasunak dituzten edo dieta bereziak behar dituzten pertsonak). Diagnostikoa egin eta gero, hiru sailkapen sortzen da dibertsitate funtzionalaren egoera adierazteko: gorria, laranja eta berdea. Berderen bat izan ezker, zigilua lortzen da. Edozein kasuan, proposaturiko aldaketak egin ezker, berriz egin ahal da diagnostikoa, hobekuntzak kontutan hartu ahal izateko.

Zigilu banaketa abenduaren 22an ospatu zen Bilbon, eta bertan egon ginen eskualdeko zenbait enpresa. Lea Artibairako oso garrantzitsua da programa hauetan parte hartzea, bereziki ikusirik beste eskualdean ere lanean dihardutela enpresen lehiakortasunaren alde.

Eskualdean honako enpresa hauek egin dute diagnostikoa aurtan:

Akuiola, Zelaigane, Satzu, Oxangoiti, Tate, Leokadi, Altuena, Naxiondo, Villaitaso, Leagi, Ibaigane, Kurtxia, Lekeitioko Itsasargia eta Lekeitioko Ondarroako Udala Turismo Bulegoak.



PARTAIDEAK:

Anton Goirigolzarri (Harizpe Nekazalturismoa), Arantza Cañameres (Satzu Landetxea), Begoña Arambalza (SICTED apoya), Delfina Ituarte (Promotorea), Esther Sarria (Leagi Camping), Ibon Goitia (Landa Garapen), Idoia (Tate gozotegia), Idoia (Intxauspe Landetxea), Itziar Castillo (Lekeitioko Turismo bulegoa), Jon Basaldua (Trinkete Aterpetxea), Jokin Arce (Batzokia Lekeitioko), Jose Antonio Bilbao (Axpe sagardotegia), Joseba Gallettebeitia (Zelaigane Pentsioa), Joseba Rosales (Ondarroako udala), Juan Urresti (Leokadi Bodegoi), Leire Aranburu (Lea Ibarra Mankomunitatea), Lourdes Etxebarria (Roldan ardoak), Maria Gabikagogeaskoa (Aisia Lekeitioko), Maritxu Gabiola (Endai Kanpina), M^a Angeles Aldekogarai (Akuiola Nekazalturismoa), M^a Carmen Ugartetxea Arakistain (Barroeta), M^a Jesús Malaxetxebarria (Astorki Goikoa Landetxea), M^a Luz Rekalde (Ibarlotza Landetxea), M^a Rosa (Tate gozotegia), Nerea Urrutibeaskoa (Lekeitiour turismo elkarte), Olatz (Trinkete Aterpetxea), Olgi Dolaraga (Kaitours gida turistikoak), Pantxo Bedialauneta (Cantabrico Taberna), Pedro (Altuena Landetxea), Rosana eta Sabin (Batzokia Ondarroa), Ube (Garro Landetxea), Yolanda Burgoa (Ondarroako Turismo bulegoa), Zenaida Solano (Zubieta Hotela), Juan (Astorki Goikoa Landetxea), Joana Ibarlotza eta Miren Martinez (Azaro Fundazioa).

Egitasmoak herriz herri

Eskualdean ekimen desberdinak jarri dira martxan turismo arloan:

- **Lekeitioko Udalak**, Itsas Ondarearen Interpretazioa Zentroaren proiektuaren baitan, Santa Katalina Itsasargiaren Nabigazioaren Interpretazio Zentroa inauguratu zuen martxoaren 26an.
- **Lekeitio** ere, honako egitasmo hauek burutu dira: Itsas Ondare Zentroari bisita gidatuak, Playa de Ondarababal txaluparen bisita, Tximinoi Jardunaldiak, Arrantzatza-Itsas Ondare Jardunaldiak, Okela eta Sagardo Eguna, II. Lekeitio- Laguardia jardunaldia, eta Saltillo bisita, besteen artean.
- **Ondarroako** Turismo bulegoak bisita gidatu desberdinak proposatu ditu herritik zehar. Bestalde, egindako ekitaldien artean Antxoia Eguna eta Lore Azokak azpimarratu behar dira.
- **Lekeitio Tour – Lea Artibai Turismo Elkarteak** honako egitasmo hauek burutu ditu, besteen artean: bazkide berriak lortu, irratian publizitatea, foiletua berinprimatu, kartela egin eta web gunea: www.lekeitiotour.com garatu.
- **Berriatua, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa eta Ziortza-Bolibar** herriek hartu zuten parte urrian Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Sailak eta Bizkaiko Udalekin batera antolatzen diren Europako Ondare Jardunaldietan. Aurten "Artea eta pentsamendua" izan da landutako gaia.
- **Lea Artibai Amankomunazgoak** Marierrrotako proiektuarekin jarraitu du: errota berreraiki egin da eta hormak berriztuta daude. Proiektu museografikoa ere martxan dago.



Erakunde desberdineko turismo planak eta egitasmoak

Basquetour- Turismoaren Euskal Agentzia honako produktu hauek lantzen ari da:

- **Euskal Kostako Dinamizazio Plana:** Plana ekainean aurkeztu zen, eta zenbait ekintza jarri dira martxan: foiletu eta mapa berriak, sentsibilizazioa ekintzak, bulego teknikoak...
- **Surfing Euskadi** produktua sortu da. Lea Artibai Mundaka gunean dago lanean. Hemen ere promozio ekintzak, web gune berria, foiletuak, surf mapak eta bulego teknikoak jarri dira martxan, beste ekintzen artean.
- **Euskadiko Ibilbideak** proiektuaren barruan, GR-38 ibilbidea jarri da balioan. Ibilbide hau Ardoa eta Arrainaren Ibilbidea da, eta Oionen hasita, hiru bukaera ditu Bizkaiko kostan: Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa. Beraz, proiektuaren partaideak gara. Garatutako ekintzak

honako hauek dira: foiletu eta plano berriak, web gunea, promozioa, gps-bidezko deskargak ...

- **Santiago Bidearen** plana aurkeztu egin zen uztailean.
- **Produktu plana** ere jarri da martxan. Eskualde bakoitzak turismo eskaintza lantzeko produktuak aurkeztu ditu Basquetourrera eta honek plan bat garatuko du aukeratutako produktuak merkaturatzeko. Lekeitioko Itsas Kultura eta Lea Artibaiko hiru eguneko ibilbideak aukeratuak izan dira plan honetan parte hartzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak turismoa dinamizatzeko laguntzak jarri ditu martxan: Produktuak sortu, merkaturatu, ondarea balioan jartzeko inbertsioak eta Bizkaitik kanpo egindako promozioa diruz laguntzen du.



Anfitriones ikastaroak

Basquetour – Turismoaren Euskal Agentzia, Leartibai Garapen Agentziarekin batera Lea Artibai eskualdean turismo sektoreko profesionali prestakuntza eskaintzeko proiektu bat jarri du. Prestakuntza Plan honen helburua eskualdera etortzen diren bezeroek somatzen duten kalitatea eta enpresa eta jomuga turistikoaren lehiakortasun maila hobetzea da. Antolatu diren ikastaroak:

- **Urriak 21** Gatazkak antzemateko eta era positibo batean konpontzeko gakoak. Adimen emozionaleko tekniketari oinarritutako pertsona kudeatzea.
- **Abenduak 16** Talde lanaren garrantzia. Talde lanarekiko jarrera positiboa mantentzearen garrantzia ulertzea.

Honako enpresa hauek hartu zuten parte: Akiola, Azaro Fundazioa, Ganbara arropa denda, Trinkete Etxea, Lekeitioko Turismo Bulegoa, Zubieta, Metrokua eta Leartibai Garapen Agentzia.

Itsasoz eta lehorrez Lea Artibai katalogoan, eskualdeko mapan edo

www.learjai.com web orrian agertzen den datoren bat oker badago (helbideak, telefono zenbakiak, e.a.), mesedez jarri kontatua gurekin bbasterretxea@leartibai.com helbide elektronikoan edo 94 616 90 88 telefono zenbakian.

Si encuentra algún dato erróneo (dirección, teléfono, etc...) en el mapa comarcal, el catálogo de Lea Artibai Por tierra y mar o en la página web www.learjai.com, por favor, contacte con nosotros en la dirección de correo electrónico

bbasterretxea@leartibai.com o en el teléfono 94 616 90 88



KIŅUKA